

Gizakia Helburua 2000ko Txostena



FUNDACION
Gizakia
FUNDAZIOA

GIZAKIA HELBURU

HARRERA
LANKIDETZA FAMILIEKIN
LAN PRESTAKUNTZARAKO PROGRAMA
ADMINISTRAZIOA ETA ZUZENDARITZA.

Tel.: 944 47 10 33
944 47 17 17
Madariaga etorbidea, 63
48014 BILBAO

PAUL-ENEA
KOMUNITATE
TERAPEUTIKOA
Tel.: 946 79 91 91
Zubiete auzoa, 87
48192 GORDEXOLA

ANBULATORIO
ZERBITZUA
GIZARTERATZEA
Tel.: 944 43 28 12
Helbidea: Simon Bolivar, 8
48010 BILBO

GIZAKIA FUNDAZIOA
Avda. Madariaga, 63
48014 BILBAO
Tel.: 944 47 10 33 • Faxe 944 47 11 58
E-mail: gizakia@terra.es
URL: [http:// www.fundgizakia.org](http://www.fundgizakia.org)

Aurkezpena

Bazen behin iceberg bat, hain handi eta hain zuri, non inork ez zion erreparatzen azpian zerramanari...

Prebentzio lanean eta menpekotasunezko gaitzen tratamenduan ari garen hainbat erakunde eta zentro, urte luzez daramagu ohartarazten zein izotz puska itzela ezkutatzen den azalaren azpian. Denok esan dugu noizbait gizartean hain alarma eskasa egotea nolako engainua den, kontsumitzaileen perfilak nola aldatu diren, sintesiko drogek eragiten dituzten kalteak...

2000 urte honetan, icebergak urtzen jarraitzen duela iruditzen zaigu. Gero eta gehiago, agerian geratzen da droga menpekotasunaren arazoa ez dela desagertu, janzkeraz aldatu baizik. Aurpegi berriak, arazo berriak, egoera berriak, eskaintza berriak daude. 16 urteko lana eta gero, sormenezko erantzunak bilatzen jarraitu behar dugu gure zentro-ra inguratzen diren erabiltzaileen eta senitartekoen eskaerak betetzeko.

Urte honetan lelo bat sortu dugu, aurkezpenetako bidelagun izan duguna. Lelo hori edozein aldaketa proiekturako baliagarri izan behar litzateke eta honakoa da: "Pertsona bat etorkizun bat".

Txosten honetan, egindako lana biltzen da eta, haren bitartez, gure esker ona agertu nahi diegu nola edo hala etorkizun hori orainaldi egiten laguntzen diguten pertsonei eta instituzioei.

Indice

2000n artatu dugun gizataldea	3
Jatorria	4
Egoera sanitarioa	5
Artatutako pertsonen ezaugarriak	6
Kontsumoaren ezaugarriak	8
Eskainitako zerbitzuak	10
Esku-hartzea espetxeetan	11
Gizarteratzea eta lan munduan sartzea	12
Beste jarduera batzuk	14
2000 urteko ondorioak	15
Harremanetan izan garen enpresa eta instituzioak	16
2000 urteko emaitza ekonomikoak	17

Datuak

2000n artatutako pertsonen datuak

Datu orokorrak

2000n artatutako jendea	378
Erabiltzaileak 1999/12/31	142
Hasierako eskaera 2000n	236
2000/12/31n tratamenduan jarraitzen dutenak	113

Artatutako gizataldearen bilakaera

2000ko eskaeraren aldean

Aholkularitza eta informazioa eskatzen dutenak	125
Tratamenduan hasten direnak	111

Artatutako pertsonen aldean oro har

Bideratuak	24
Hirustara (Nerabeak artatzeko zentroa)	11
Adimen Osasuneko zentroetara	5
Bestelako tratamenduetara	5
Lurralde honetaz kanpoko beste Gizakia Helburuetara	3
Tratamendua bertan behera utzi dutenak	90
Altak terapian	46

Jatorria



Egoera sanitarioa

Txostena 2000

Nabarmendu beharrekoa da gaitz psikikoen eta menpekotasunen arteko harreman zuzena areagotu egin dela.

Harrera zentroetan errehabilitazio prozesua hasi duen gizataldearen %60k sintoma psikiatriko bat zuen tratamendua behar zuena, eta zentroan bertan artatuak izan ziren edo Adimen Osasuneko Zentroekin koordinatuta.

Araututako desintoxikazioak	54	sarreraren %41
PMMari lotutako gaixoen artatzea	16	“ %12
Gizatalde seropositiboa	26	“ %19
Tuberkulosiaren prebentziorako tratamenduak	7	“ %5
Tratamendu psikiatriko erantsiak	75	“ %57
Kronika Hepatitisa	54	“ %41
Txertoak	36	“ %27

Ezaugarriak

Artatutako jendearen ezaugarriak

Tratamendua eskatu duten 236 pertsonetatik:

Gizonezkoak %85 dira eta emakumezkoak, aldiz, %15.

Batez besteko adina 33,5 urtekoa da.

%72 ezkongabeak dira.

%66k Eskola Graduatuko prestakuntza gutxienez bazuten.

%29, egindako delituengatiko epaiketa egiteko zain daude. Beste %21ek aurrekari penalak ditu.



%22k seme-alabak ditu. Seme-alaben batez bestekoa 1,31ekoa da.


Euren droga menpekotasuna 5,5 urtez luzatu da. Nabarmentzekoa da substantziak gorputzeratzeko bideak aldatu direla. Soilik %18k eusten diote zaineko bidea erabiltzeari.

Jende multzo honen %50, noizbait tratamendua hartzeko ahaleaginean aritu da: ospitaleko desintoxikazioa, norbanako kontsultak, anbulatorioak edo bestelako komunitate terapeutikoak.

Kontsumoa

Kontsumoaren ezaugarriak

Beheko grafikoak erakusten ditu azken hiru urte hauetan kontsumorako gehien aukeraturako substantziak. Substantzia horien ehunekoen artean oso alde adierazgarriak daude.



Aurkeztutako datuak oinarritzat hartuta, heroinaren kontsumo lehenetsiaren indizeak behera egin du %25,5 azken hiru urteetan. Kokainarenak, aldiz, %23,5 egin du gora. Horrek esan nahi du Gizakia Helburun tratamendua eskatzen duten pertsonen kopurua hirukoiztu egin dela.

Aldiz, alkoholaren kontsumoari dagokion datua engainagarria izan daiteke. Indize hori, izan ere, errealitate oso behera dago, oso gutxitan aipatzen baita kontsumorako substantzia lehenetsi modura. Sarritan, hala ere, beste kontsumo lehenetsi batzuei erantsita agertzen da.

Kokainaren kontsumoak nabarmen gora egin duela eta, jende multzo horri buruzko azterketa bat egiten ari gara. Azterketa horrek artatze lanean bide berriak irekitzeko modua emango du.

Azterketa, kokainaren kontsumitzaile diren 40 pertsonari dagokio, horietatik %86 gizonetzko eta %14 emakumezko. Gaixo horien azterketa toxikologikoa egiterakoan, oso ohikoa da speed kontsumoa aurkitzea oso gaztetan. Sarritan, depresio gaitz distimikoak, hiperaktibitatea, bulkaden kontrolaren gaitzak, etab.

Tratamenduan jartzeko arrazoiak ezberdinak dira: senitartekoen jarrera, ezkontideak uzteko beldurra, esperientzia desatseginekin lotutako ospitaleratzeak (kontsumo-osteko depresioak, autokontrola galdu osteko beldurrak...).

Oro har, esan dezakegu pertsona horiek badutela kontsumoarekin lotutako arazo baten kontzientzia, nahiz eta gehienetan ez duten hura lan erritmoarekin, estresarekin, gaueko negozioekin, arazo psikiatrikoekin lotzen...

Zerbitzuak

Eskainitako zerbitzuak

Tratamendu integral baterako eta jarraibide pertsonalizatuak emateko, Gizakia Helburuk honako zerbitzuak eskaintzen ditu:

Desintoxikazioak

Harrera zentroa

Komunitate Terapeutikoa

Anbulatorioko tratamendu zerbitzua

Gizarteratzea

Familiekin lankidetzatza

Lan Prestakuntzarako Programa

Esku-hartzea espetxeetan

Esku-hartzea

espetetxeetan

1992 urtetik, Langraitz (Araba) eta Basauriko (Bizkaia) presondegien barruan toxikomanietan esku hartzeko programa bat garatzen ari gara, hartara, eskatu diguten pertsona presoei arre-ta eskainiz.

120 pertsona artatu ditugu Basauri eta Langraitzeko presondegietan. Eskainitako arre-ta, nor-banakako elkarrizketa eta talde dinamikaren bitartez burutu da. Familiekin ere harremanean jarri gara eta haiekin lan egin, horretarako modua egon den kasuetan.

Preso dagoen gizataldearen ezaugarrien artean, honakoak aipa ditzakegu:

- Maila akademiko baxua. Ikasketak bertan behera uzteko adina, batez beste, 15 urtetik beherakoa da.
- Lan prestakuntza eskasa.
- Familia desegituratuak. Familiarekin harreman eza edo eskasa.
- Erantsitako gaitz ugari, baita bestelako patologia psikologiko/psikiatrikoak ere.
- Norbere buruaren irudi txarra eta giza nahiz gizarte harremanetarako trebetasun oso eskasa.

Esku-hartzearen xedea da pertsona horiek, arian-arian, arlo ezberdinetan (arloan pertsonalean, familian, prestakuntzan, lanean, osasunean) eta beraiek eskatutako gaietan gizarteratzea. Helburu zehatzetan hauek aipatu behar dira:

- Motibatzea eta aldaketa pertsonala sustatzea, droga kontsumotik urruntzea ahalbidetuz eta, modua dagoen kasuetan, abstinentsiari eustea.
- Kaltea gutxitzea droga kontsumoa gutxituz, eta garbiagoa eginez, abstinentsia ezinez-koa denean.
- Artatutako gizataldean eragina duten erakundeekin, espetxe barruko nahiz kanpokoe-kin, koordinatzea.
- Tratamenduaren prestakuntza eta tratamendua bera hasi, zigorra beste era batean betetzeko espetxetik ateratzea posible den kasuetan.
- Espetxean bertan laguntza programa bat eskaintzea espetxetik ateratzeko modurik ikusten ez denean.

Urte honetan 13 pertsona atera dira espetxetik tratamenduan hasteko, 3. graduaren bitartez, Espetxeko Erregelamenduko 182 artikulua agintzen duenaren arabera. Hiru pertsona sartu dira tratamenduan, zigorra betetzeko beste modu bat eman eta gero.

Lana

Lan prestakuntzarako programa

Egindako lanak lehentasuna ematen die, egoera pertsonalak nahiz familia edo gizarte egoerak direla eta, kalitatezko enplegu batean sartzeko zailtasun handienak dituzten pertsonei.

Europako Gizarte Fondoko programen finantzaketarekin, Gizakia Helburuk lan eta prestakuntzarako zerbitzu bat jarri zuen abian. Hartara, terapia prozesuaren esku-hartze paralelo bat egiten da, lanari buruzko informazio, prestakuntza eta enplegu bilaketaren bitartez. Prozesu hori lan munduan sartzearekin bukatzen da.


Esku-hartze zehatzetarako jorratu dugun metodologia, ACTIO Europako programak egindako ebaluazioko arrakastaren zutabetako bat izan da. Metodologia horren oinarrizko lau elementuak hauek dira:

- Pertsonari ematen zaion garrantzi bete-betea, bere egoera orokorra aztertuz eta horren arabera lan nahiz prestakuntzako irtenbideak bilatuz.
- Norabanakako jarraipen etengabea prozesuan zehar.
- Koordinazioa terapia lanarekin.
- Diziiplina arteko talde lana.


Lan munduan sartzea lortzeko planifikatutako ekintzak bitan multzokatu daitezke:

- Prestakuntza eta lanari buruzko balorazio norbanakotua prozesu osoan zehar.
- Prestakuntzarako ekintzak.


2000n 133 pertsona artatu dira. Horietatik %65, Europako Batasuneko INTEGRA ekimeneko ACTIO programaren onura izan dute. Programa aurtengo Ekainean bukatu zen.



2000ko abendurako, 61 pertsonak hartu dute kontaktua lan munduarekin.



Gizonen %35ak eta emakumeen %39k, jasotako prestakuntzarekin lotutako lana lortu dute.



Prestakuntza ekintzetan parte hartu duen pertsona kopurua.



Beste jarduerak

Beste jarduera batzuk

Argitalpenak

“La dependencia relacional en las mujeres adictas” (Lete M^a R., Revuelta, M^a. C., Sánchez E.), Pere Tarrés Unibertsitateko Intervención Socioeducativa aldizkarian argitaratua, 14 zenbakia. Bartzelona, 2000ko urtarrila-apirila.

Komunikazioak

“La definición subjetiva del ocio en drogodependientes adscritos a tratamiento” (Armaolea E. eta laguntzaileak), “Aisia eta Giza Garapena” lelopean egindako 6. Aisiari buruzko Mundu Kongresuan aurkeztua Deustuko Unibertsitatean, Bilbon, 2000ko uztai-lean.

Hainbat forotan parte hartu

- Bilboko Udaleko Droga Menpekotasuneko Udal Aholkularitza. Gizarteratzeko Batzorde Teknikoa.
- IV. Droga Menpekotasunen Hiru Urteko Plana jorratu eta jarraitzeko Eusko Jaurlaritzaren Droga Menpekotasunei buruzko Aholku Batzordea (2000-2002). Gizarteratzeko Batzorde Teknikoa.

Klase eta solasaldiak

Gizakia Helburu Programaren metodologiaren aurkezpena Psikologoek Elkargoak eta Bilboko Udalak nork bere aldetik antolatutako zikloetan.

Lankidetzak praktiketarako zentro modura

Aurreko urteetan bezala, Euskal Herriko Unibertsitatetik, Deustuko Unibertsitatetik eta Psikologoek Elkargo Ofizialetik ikasleak onartzen jarraitu dugu gurean. Eguneroko praktikaz gain, nabarmendu beharrekoa da fakultateetako batekin hitzartutako akordioa honako azterketan lankide aritzeko: “Erabiltzaile eta senitartekoen adostasun maila Bizkaiko Gizakia Helbururekin: 1996-2000 urteak”.

Ikastaroetan parte hartu

Gure lana, prestakuntza etengabearen ikuspegitik, beste profesionalekin kontrastatzeari eutsi diogu gure intereseko jardunaldi eta ikastaroetan parte hartuz.

Ondorioak

2000 urteko ondorioak

Txostena 2000

Gauza aipagarrienetako bat, zentro honetako profesionalek, elkarlana sendotzeko, beste erakundeekin koordinatuta egindako lana da. Aurreko urteetan, Harrera Zentroak, Gizarteratze Zentroak eta anbulatorioko tratamendu Zerbitzuak **metadona** bidezko mantentze-lan programan parte hartzen zuten pertsonak hartu ditu. Aurten, **Komunitate Terapeutikoak** esperientzia honen balorazio positiboa egin du.

2000ko urtarrilaren 11n Atzerriartasun Legea onartzeak, eta gauzatzeak gero, **etorkinen kopurua handitzea** eragin zuen. Aldi honetan naziotasun ezberdineko 26 pertsona bertaratu zaizkigu. Droga menpekotasunaren arazoaz gain, euren egoera zailago bihurtzen zen honako arazoengatik: etxerik ez izatea, bizirauteko oinarritzko bitartekoak ez izatea, analfabeto funtzionalak izatea, hizkuntza ez jakitea... Aurtengo esperientziak gogoeta piztu du gurean ezaugarri oso bereziko gizatalde hori artatzeko behar diren estrategiei buruz.

Teknologia berrietan eguneratuta izateko ahaleaginean, gure **webgunea** berritxuratu dugu. Bertan, burututako artatze lanaren datuak eguneratu ditugu eta nabigatzea erakargarriagoa egiteko aurkezpen bat eskaini dugu. Aurten, webgune horrek 472 bisita hartu ditu.

Gure zerbitzuetan jasotako deietan sumatu diren beharrianak kontuan hartuz, Gizakia Fundazioak programa berri bat jarri du martxan: **@tiempo**, "Gatazka pertsonalak eta gizarte gatazkak artatzea". Telefonoz artatzeko zerbitzu honen arrazoia da gero eta jende gehiagok gure programetara deitzen duela kontsultak egiteko, informazioa eskatzeko eta, batik bat, entzunak eta artatuak izateko.

Harremanak

Harremana izan dugun enpresak eta erakundeak

- Agiantza
- Bilboko Udal Aterpea
- Federico Ozaman Aterpea
- Arthur Andersen
- Askabide
- Asociación Española Proyecto Hombre
- Aspremar
- Bi-Etxeak
- Bilbo-Etxezabal
- Bultz-Lan
- Caritas Droga eta Norabide
- Basauriko eta Langraitzeko presondegiak eta bestelako instituzio judizialak
- Psikologoaren Elkargoa
- Manu-Ene Komunitate Terapeutikoa
- Gizakia Helburu Programen Erakunde Sustatzaileen Konfederakuntza
- Bizkaiko Foru Aldundia
- EPO Otxarkoaga
- Etorkintza
- FERE
- Droga Menpekotasunaren kontrako Fundazioa
- ADSIS-Bestalde Fundazioa
- EDE Fundazioa
- Eusko Jaurlaritza:
 - Droga Gaietarako Idazkaritza
 - Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila
 - Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Saila
 - Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
- Goiztiri
- Gizarte Informatikako Taldea (ESIDE-UD).
- Iberdrola
- Igon
- Instituto Deusto Drogodependencias
- Euskadiko Birgizarteratzeko Erakundeak
- Lagun Artean
- Munduko Medikuek
- Arreta Psikosozialerako Zentroak
- Drogomenpekotasunaren Euskal Behatokia eta Europako Behatokia
- Pastoral Penitenciarria
- Deustuko Salesianoak
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
- Jesusen Zerbitzariak
- Deustuko Unibertsitatea
- Euskal Herriko Unibertsitatea

Datu ekonomikoak

Gizakia Helbururen 2000ko Datu Ekonomikoak

GIZAKIA HELBURUREN GASTUAK

1. Langileen gastuak	119.514.317
2. Errentamenduak eta kanonak	15.742.388
3. Kanpo zerbitzuak eta azpikontratazioak	14.573.774
4. Beste ustiapen gastu batzuk	29.604.594
5. Gastu finantzarioak eta parekoak	3.617.588
6. Higiezinak amortizatzeko zuzkidurak	10.410.068
7. Aparteko gastuak	1.178.700

GASTUAK GUZTIRA

194.641.429 pzta.

GIZAKIA HELBURUREN SARRERAK

1. Dirulaguntza publikoak	92.559.487
Eusko Jaurlaritza	60.580.188
Bizkaiko Foru Aldundia	22.261.883
Bilboko Udala	3.000.000
Gobernu Zentrala	2.240.000
Getxoko Udala	2.000.000
Hobetuzetik egindako ekarpenak	1.279.216
Beste udal batzuk	1.198.200
2. Dohaintzak eta beste ekarpen batzuk	48.459.068
Familia eta erabiltzaileen dohaintzak	16.716.620
Enpresen dohaintzak	22.527.493
Beste gizarte erakunde batzuk	9.214.955
3. Beste sarrera batzuk	2.521.798
4. Aparteko sarrerak	2.311.348
5. Fundazioak jasotako beste diru sarrera batzuk	45.907.790

SARRERAK GUZTIRA


191.759.491 pzta.

SARRERA-GASTUEN EMAITZAK

-2.881.938 pzta.


Aurrekontu honetan ez dira @tiempo Telefono bidezko Arreta Zerbitzuko datuak sartu

Gastuen aurrekontuen banakapena



Programaren autofinantzaketaren xehetasuna

Gizakia Helburu Programak zuzenean lortutako banakapena, jatorriaren arabera.



Datu ekonomikoak

Gizakia Fundazioaren 2000ko Datu Ekonomikoak

GIZAKIA FUNDAZIOAREN GASTUAK

1. Langileen gastuak	144.905.777
2. Errentamenduak eta kanonak	17.193.449
3. Kanpo zerbitzuak eta azpikontratazioak	17.079.418
4. Beste ustiapen gastu batzuk	33.432.228
5. Finantza gastuak eta gastu parekoak	4.386.983
6. Higiezinak amortizatzeko zuzkidurak	12.624.098
7. Aparteko gastuak	423.433

GASTUAK GUZTIRA

230.045.386 pzta.

GIZAKIA FUNDAZIOAREN SARRERAK

1. Dirulaguntza publikoak	126.255.285
Eusko Jaurlaritza	72.689.050
Foru Aldundia	25.261.883
Udalak	11.198.200
Europako Fondo Soziala	10.413.662
Administrazio Zentrala	3.684.444
Dirulaguntzak gauzatan	1.865.365
Hobetuz	1.142.681
2. Dohaintzak eta beste ekarpen batzuk	92.226.385
Familia eta erabiltzaileen dohaintzak	14.248.636
Beste dohaintza partikular	13.695.801
Caritas	20.969.500
Beste gizarte erakunde batzuk	20.784.955
Enpresen dohaintzak	22.527.493
3. Hainbat zerbitzu	2.307.487
4. Beste diru sarrera batzuk	3.058.138
5. Aparteko sarrerak	2.802.929

SARRERAK GUZTIRA

226.650.224 pzta.

SARRERAK-GASTUEN EMAITZAK


-3.395.162 pzta.

Erakundeak


Gizakia Fundazioa diruz laguntzen duten Erakundeak

Gizakia Fundazioak sustatzen dituen programa ezberdinak gauzatzea laguntzen duten Erakundeak

I • Administrazio Publikoak



II • Erakunde Pribatuak



Caritasek eta elizbarrutiko ingurukoek (gotzaindegia, zenbait erlijio orden eta parrokia) hartu dute parte 2000 urtean 32 milioi pezetatik gora emanez.